



ARABAKO BATZAR NAGUSIETAKO LAN-POLTSAK ERREGULATZEKO ARAUDIA

Lehenena.- Lan-poltsaren kontzeptua

Lan-poltsa da Arabako Batzar Nagusiek kudeatutako hautaketa-prozesuetan parte-hartu duten pertsonen zerrenda bat.

Bigarrena.- Lan-poltsak zertarako erabiliko diren

1. Lanpostuak aldi baterako hornitzea.

Lan-poltsak erabiliko dira aldi baterako funtzionario bat izendatzeko honako kasu hauetan: bete gabe dauden karrerako funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak hornitu behar direnean, eta lanpostu horien titularra edo lanpostua betetzen duena aldi baterako lanpostutik kanpo bada, betiere Mahaiak lanpostu horiek betetzea erabakitzen duelarik.

2. Aldi baterako programak

Lan-poltsak erabiliko dira aldi baterako funtzionario bat izendatzeko, aldi baterako programak gauzatze aldera. Izendapenean edo bere eranskinean zehaztu beharko da programa noiz amaitzea aurreikusten den eta zer dela-eta amaituko den, bai eta zein diren izendapena eragin duten beharrak eta aldi baterako programari emandako zeregin edo lan nagusien zerrenda.

Hirugarrena.- Lan-poltsak eratzea eta lehentasun-hurrenkera

Honako lehentasun-hurrenkera ezarri da:

1.- Batzar Nagusi hauetan burututako azken bi hautaketa-prozesuetan sortutako lan-poltsak. Berriek lehentasuna izango dute zaharrenean aldean. Poltsa hauetako deialdiak egiteko honako hurrenkera erabiliko da:

a) Oposizio-faseko derrigorrezko ariketa baztertzaille guztiak gainditu dituzten eta lanpostua lortu ez duten izangaiak. Hurrenkera ezarriko da lortutako puntuazio totalaren arabera, lehiaketa-fasea barne.

b) Derrigorrezko ariketa baztertzaille gehien gainditu dituzten izangaiak, gainditutako ariketa horietan lortutako puntuazio totalaren arabera, harik eta lehen derrigorrezko ariketa baztertzaillea baino gainditu ez duten pertsonen zerrenda agortu arte.

2.- Arabako Batzar Nagusietan egindako lan-poltsa deialdi espezifikoetatik eratutako lan-poltsak. Berriek lehentasuna izango dute zaharrenean aldean.

3.- Aurreko ataletan adieraziko prozesuetatik aterako lan-poltsarik izan ezean, jo ahal izango da Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Legebiltzarraren edo Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen deialdi espezifiketatik edo lan publikoaren eskaintzako deialdietatik eratorritako lan-poltsetara. Berriek lehentasuna izango dute zaharrenean aldean. Poltsa hautatzeko kontuan izango da bete beharreko zereginak antzekoak izatea. Proba osagarriak egin ahal izango dira, eta eskatu ahal izango da bete beharreko lanpostu zehatzerako lanpostuen zerrendan exijitutako titulazio espezifikoa.

Izangaiak izateko premia edo zailtasun arrazoiengatik, salbuespenez eta aurretiaz justifikatutako memoria bat eginez, Enplegu publikoko zerbitzuetara jo ahal izango da.

Laugarrena.- Hautatzeko prozedura

Deialdia egingo da hirugarren arauan ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera. Ezin izango da hautatu zerbitzu-harremana hasteko unean aldi baterako ezintasun-egoeran dagoen inor.

Bosgarrena.- Lan-poltsen kudeaketa

Lan-eskaintzak jakinaraziko dira egindako saiakera eta, hala badagokio, komunikazioa gauzatu dela, jasota utzi dezakeen edozein bitartekoen bidez.

Lan-eskaintza lehenengo eta behin telefono bidez egingo da, egun berean bi saiakera eginda; bien artean gutxienez ordu bat egon behar da. Aurreko bi saiakerak eginda ezin bada komunikaziorik izan hautatutako pertsonarekin, posta elektronikoa bidez mezu bat bidaliko zaio. Idazkaritza Nagusiak espedientean jasoko ditu egindako deiak eta bidalitako posta elektronikoa mezuak.

Egun baliodun 1eko epea igaroko balitz eta hautatutako pertsonak harremanetan jarriko ez balira Idazkari Nagusiarekin, aurkitu ezintzat joko dira eta hurrengo izangaiari deituko zaio.

Hautatutako pertsonak egiten zaion lan-eskaintzaren berri duen momentutik, egun baliodun 1eko epea emango zaio eskaintza onartzen duen ala ez adierazteko. Eskaintzari uko egitea idatziz jakinarazi behar da betiere. Jakinarazpen hori egin ezean, izangaiak dagokion lan-poltsaren azken lekura pasako dira.

Derrigortasun-data duen hizkuntza-eskakizuna esleitu zaien lanpostuak hornitzeko, deialdia egingo da poltsa bakoitzaren hurrenkera errespetatuz, dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten pertsonen alde.

Arabako Batzar Nagusietako lan-poltsak osatzen dituzten pertsonak edonoiz aurkeztu ahal izango dituzte lan-poltsak eratu ondoren lortutako hizkuntza-eskakizunak. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen den momentutik, balio izango du derrigortasun-data iraungita duten

lanpostuetarako deialdia egiteko, betiere egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna eskatutakoa edo goragokoa bada. Dagokion hizkuntza-eskakizuna lan-poltsa eratu ondoren egiaztatzen bada, datu hori jaso egingo da, baina horrek ez du interesdunak duen azken puntuazioa handituko eta lan-poltsa eratzean ezarritako hurrenkerari eutsiko zaio.

Seigarrena.- Lan-poltsa osatzen duena egon daitekeen egoerak.

1). Eskuragarri. Honako egoera hauetako batean ez dagoena:

2). Lanean. Arabako Batzar Nagusien zerbitzura lanean ari dena. Egoera horretan dauden langileak eskuragarri egongo dira zerbitzuen prestazio amaitutakoan, eta ondorioz lan-
eskaintzak jaso ahal izango ditu.

3). Aldi baterako baja. Lan-poltsa osatzen dutenak egoera horretara pasako dira honako kasu
hauetan:

- Deialdiaren aurretik berriaz eskatzen dutenean lan-poltsan aldi baterako baja hartzea. Ez da beharrezkoa justifikatzeko arrazoirik ematea. Kasu horietan, aldi baterako baja gutxienez 6 hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten den datatik aurrera.

- Behar bezala egiaztatutako arrazoiengatik lan-
eskaintza bati uko egiten diotenean. Honakoak dira kausa justifikagarriak:

- Aldi baterako ezintasun-egoerak.
- Haurdunaldi-, erditze- eta edoskitze-lizentziak eta/edo adopzio- edo harrera-lizentziak hartzea ahalbidetzen duten egoerak.
- Arabako Batzar Nagusien eremutik kanpo lanean aritzea.

Kausa horiek egiaztatu ahal izango dira deialdiaren ondorengo 5 egun naturaleko epean. Behin aldi baterako baja egoerara pasatzea eragin zuen kausa bukatuta, interesdunak idatziz jakinarazi beharko du 10 egun naturaleko epean, eta hori justifikatzen duen dokumentazioa erantsi beharko du.

4). Behin betiko baja. Egoera horretara pasako dira:

- Lan-
eskaintza bati uko egiten diotenak, salbu eta uko egiteak aldi baterako baja egoerara pasatzea badakar.

- 5 egun naturaleko epean aldi baterako baja egoerara pasatzeko kausa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten ez dutenak edo aurreko puntuak jasotakoaren arabera aldi baterako bajaren egoera bukatu dela egiaztatzen edo jakinarazten ez dutenak.

5). Aurkiezina. Aurkiezin egoerara pasako dira kontratatzea ezinezkoa izan den lan-poltsako kideak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailak 11